



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Basauriko Udala

Deialdia eta Oinarriak, plaza bat (1) txanda irekian oposizio bidez betetzeko; plazaren ezaugarriak: Administrazio Bereziko Eskala, azpieskala teknikoa, teknikari laguntzaile klasea, C1 Taldea, Diru-Bilketako Administrari Teknikaria.

Alkate jaunak, 2358/2024 Dekretua eman du, ekainaren 10ekoa (akatsen zuzenketa Alkatetza 2532/2024 Dekretuaren bidez egin da, ekainaren 21ekoa). Bertan, honako hau xedatu du:

Ikusi da abenduaren 20ko 4311/2022 Dekretuaren bidez xedatutakoa. Dekretu horren bidez, Basauriko Udalaren 2022ko ekitaldirako lan-eskaintza handitzea onartzen da, dagozkion hautaketa-prozesuen bidez bete beharko diren plazak jasotzen dituen (hemen argitaratu zen osorik: 2022ko abenduaren 30eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 248. zenbakia). Dekretu horren bidez, besteak beste, honako lanpostu hau onartu zen: txanda irekian, Administrazio Bereziko eskalako, azpieskala Teknikoko, teknikari laguntzaile Klaseko, C1 taldeko, diru-bilketako administrari teknikari plaza bat (1).

Horrez gain, Basauriko Udaleko karrerako funtzionarioa izateko hautapen-prozesuak arautuko dituzten Oinarri Orokorrak onetsi zituen ekainaren 1eko 2311/2022 Dekretuak, zeina urte bereko uztailaren 26ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (110. zenbakia) argitaratu zen.

Horrekin batera, baina, eskala, azpieskala eta klase bakoitzeko hautapen-prozesu bakoitzerako oinarri espezifikoak argitaratu behar dira, deialdi bakoitzaren berezko ezaugarriak zehaztuta.

Aurrekontuak Betearazteko Udal Arauan xedatutakoaren arabera, jakinarazten da deialdi honen xede den plazak ez dakarrela I. kapituluko gastua handitzea, une honetan bitarteko funtzionarioek betetzen dutelako plaza hori eta 2024ko ekitaldiaren hasieran onartutako gastuaren baimenean eta xedapenean sartuta daudelako.

Horrela, bada, adierazitako guztia aintzat hartuta, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.g) letra artikuluko esleitutako eskumenetan oinarrituta, alkateak honako hau

XEDATZEN DU:

Lehenengoa: Oinarri hauen xede diren hautapen-probetarako deialdia egitea.

Bigarrena: Administrazio Bereziko eskalako, azpieskala Teknikoko, teknikari laguntzaile klaseko, C1 taldeko, diru-bilketako administrari teknikari derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizuneko plaza bat (1) txanda irekian oposizio bidez betetzeko hautaketa-prozesu arautuko duten oinarri espezifikoak onestea.

Hirugarrena: Oinarri espezifiko horiek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta deialdiaren laburpena BOEn argitaratzeko agindua ematea.

Laugarrena: Dekretu honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, berau argitaratzen den dataren biharamunetik bi hilabeteko epean. Bestela, nahi izanez gero, beraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoan. Hala xedatzen du Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluko, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluekin bat.

Basaurin, 2024ko ekainaren 28an.—Alkatea, Asier Irigorri Basaguren



OINARRI ESPEZIFIKOAK: PLAZA BAT (1) TXANDA IREKIAN OPOSIZIO BIDEZ BETETZEKO; PLAZAREN EZAUGARRIAK: ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA, AZPIESKALA TEKNIKOA, TEKNIKARI LAGUNTZAILE KLASEA, C1 TALDEA, DIRU-BILKETAKO ADMINISTRARI TEKNIKARIA

1. Deitutako plazak

Administrazio Bereziko eskalako, azpieskala Teknikoko, teknikari laguntzaile klaseko, C1 taldeko, diru-bilketako administrari teknikari, derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizuneko plaza bat (1) txanda irekian oposizio bidez betetzeko hautaketa-prozesua.

Deitutako plaza 2022ko LEPeri dagokio.

Funtzioak: Bere ardurapean dauden zerbitzuak eta espedienteak dokumentatzea eta normalizatzea. Adierazleak kontrolatzea eta ebaluatzea, eta zerbitzuak eta/edo espedienteak hobetzeko aukerak identifikatzea. Bere ardurapeko zerbitzuen eta/edo espedienteen kudeaketa, jarraipena, kontrola eta hobekuntza-proposamena. Epeak eta akatsak ez betetzearen berri ematea. Bere ardurapeko zerbitzuekin eta/edo espedienteekin lotutako gaien buruzko txostenak, ebazpenak eta memoriak egitea. Jendeari arreta ematea bere zerbitzuekin eta/edo espedienteekin zerikusia duten gaitan. Borondatezko eta nahitaezko diru-bilketako prozesuak kudeatzea.

2. Baldintzak

Alkatetzaren uztailaren 1eko 2311/2022 Dekretu bidez onetsitako oinarri orokorretan ezarritako baldintzak betetzeaz gain:

- Batxilergo titulazioa, Teknikari edo baliokidea izatea, edo emateko eskubideak ordaindu izana. Ekainaren 10eko EDU/520/2011 Aginduaren bidez aldatutako Hezkuntzari buruzko maitzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan araututako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko graduatu-tituluekiko baliokidetasunak ezartzen dituen ekainaren 10eko EDU/1603/2009 Aginduan xedatutakoa beteko da. Atzerrian lortutako titulazioak dituzten izangaiak egiaztatu beharko dute dagokien baliozkotzea edo, hala badagokio, tituluaren homologazioa egiaztatzen duen kredentziala dutela.
- Azterketa-eskibideengatiko tsas ordaindu izana. C1 azpitalderako tasaren zenbatekoa 14,00 euro da.
- Euskarazko 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen duen ziurtagiria izatea, edo, hala badagokio, 8.3 oinarrian ezarritakoaren arabera lortzea.
- Hautaketa-prozesuaren barruan, honako modulu hauen IT Txartelaren ziurtagiriak dituztela egiaztatzea:
 - Microsoft Word Aurreratua, edozein bertsio.
 - Microsoft Excel Aurreratua, edozein bertsio.
 - Microsoft Outlook, edozein bertsio.

3. Eskabideak aurkeztea

3.1. Epea

Hautapen-prozesuan onartuak izateko eskabide normalizatuak hogeita (20) egun baliouduneko epean aurkeztu behar dira, deialdiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den dataren biharamunetik zenbatzen hasita.

3.2. Eskabidearen baldintzak.

Hautaketa-prozesuan parte hartu nahi dutenek Internet bidez egin beharko dute eskabidea eta, horretarako, Basauriko Udalaren egoitza elektronikoan (<https://www.sedeelectronica.basauri.eus>) eskuragarri dagoen eskabidea bete beharko dute.

Baliabide propiorik izan ezean, Udalak aurrez aurreko arretarako gune bat jarriko du Udalaren Herritarren Arretarako Zerbitzuan, izapideak egiteko beharrezkoak diren baliabide informatikoak eskaintzeko.



Izangaiak eskabidearen atal guztiak bete beharko dituzte. Eskatutako baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute, 2. oinarrian ezarritakoaren arabera.

Horretarako, izangaiak honako hauek jaso beharko dituzte instantzietan, dagozkien ataletan:

- Datu pertsonalak.
- Oposizio faseko hautaprobak zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituzten: euskaraz ala gaztelaniaz.
- Deialdian parte hartu ahal izateko baldintza gisa eskatzen diren eta aurkezten diren ikasketa-titulu ofizialak.
- Egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna, baldin badaukate. Bestela, hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ahal izango dute 8.3 oinarrian hirugarren ariketarako ezarritako moduan eta epean.
- 2.2 oinarrian adierazitako IT-Txartela ziurtagiriak, halakorik badute. Bestela, 2.2 oinarrian ezarritako epean egiaztatuko dira.

Hautapen-prozesuari buruzko argibideak edo informazioa behar izanez gero, posta elektronikoz eskatu beharko dira, eskabide-inprimakiarekin batera adieraziko den helbidetan.

4. Dokumentuak aurkeztea

4.1. Parte hartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko agiriak

2. oinarrian adierazitako parte hartzeko baldintzak egiaztatzeko dokumentazioa hautaketa-prozesua gaingitu duten pertsonen behin betiko zerrenda argitaratu ondoren aurkeztuko da, 8. oinarrian aurreikusitakoaren arabera.

Oinarri hauetan ezarritako epearen barruan, eskatutako dokumentazioa aurkezten ez dutenek edo dokumentazioa aztertuta 2. oinarrian adierazitako baldintzaren bat betetzen ez dutela ondorioztatzen bada, praktiketako edo karrerako funtzionario izendatzeko eskubide guztiak galduko dituzte, hasierako eskabidean gezurrezko datuak emateagatik izan ditzaketen erantzukizunak alde batera utzi gabe.

Ez da beharrezkoa izango Basauriko Udaleko langileen espedientean dauden dokumentuak aurkeztea; kasu horretan, nahikoa izango da epe barruan alegatzea.

4.2. Dokumentuak itzultzea eta konpultsatzea

Espaniako nazionalitatea ez dutenek dokumentazio guztia aurkeztu beharko dute, euskarara edo gaztelaniara egindako itzulpen ofizialarekin batera. Itzulpena zinpeko itzultzaileak egina behar du, edo dagokion kontsulatu edo bulego diplomatikoak baliozkotua.

Deialdian parte hartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak aurkeztu behar dira, 4.1 oinarrian ezarritakoaren arabera beharrezkoa ez denean izan ezik.

5. Izangaiak onartzea

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, onartuen eta baztertuen zerrenda onetsiko da alkatearen dekretu bitartez. Bazter utzitakoen kasuan, horretarako arrazoiak adierazi beharko dira; eta eskabidean akatsak edo hutsuneak zuzendu behar dituztenen kasuak ere zehaztuko dira. Aipatutako ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

10 egun baliouduneko epea egongo da onartutakoen behin-behineko zerrendaren akatsak edo hutsuneak zuzentzeko, aurreko ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den dataren biharamunetik zenbatzen hasita.

Gero, alkateak beste ebazpen bat emango du, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendarekin. Ebazpen hori ere Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtuko da, besterik gabe.

Hautagai bat hautaketa-prozesuan onartzeak ez dio Administrazioari eragotziko izangaiak baztertea, horiek onartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen ez dituztela



egiaztatzen bada. Kasu horretan, Epaimahaiak, interesdunari entzun ondoren, bidezkoa bada, Alkatezari ebazpen-proposamena igorriko dio, dagokiona prozesutik kanpo utziz.

Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onesten duen dekretuan baztertu gisa agertzen diren izangaiek errekursoak aurkezten badituzte, eta, hautaprobak egiteko datan, errekurso horiek oraindik ebatzi gabe badaude, izangai horiek hautaprobak egin ahal izango dituzte, nahiz eta, gero, aipatutako errekursoak ezesten badira, ez duten baliorik izango.

6. Epaimahai kalifikatzailea

6.1. Alkatearen dekretu bidez jakinaraziko dira, batetik, hautaketa-epaimahaiaren osaera, eta, bestetik, lehenengo ariketa egiteko tokia, data eta ordua.

6.2. Epaimahaiaren osaerak bat egingo du Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 60. artikuluaekin (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsi zuen aipatutako testu bategina). Epaimahaiburuak, idazkariak eta lau epaimahaikidek osatuko dute Epaimahai Kalifikatzailea, eta kide guztiek eduki beharko dute deialdian parte hartzeko eskatutako titulu akademikoaren maila bereko edo goragoko titulazioa. Bestalde, Epaimahaiko kide guztiek hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izango dute. Idazkariak, aldiz, hitz egin bai, baina ezin izango du botorik eman. Epaimahaia osatu beharko da kideen inpartzialtasun eta profesionaltasun printzipioetatik abiatuta. Gainera, osaera parekidearen alde egingo da, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Epaimahaikideetako bat izendatuko da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen proposamenari jarraituta.

6.3. Epaimahaiak aholkulariak deitu ahal izango ditu. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetara mugatuko dira, hautapen-prozesuaren proba batzuetan edo guztietan. Halaxe aurreikusten du Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 81.9 artikulua.

6.4. Epaimahaiko kideek ezin izango dute parte hartu, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako inguruabarren bat gauzatzen bada; eta, kasua hori bada, horren berri eman beharko diote alkate udalburuari. Era berean, Lege beraren 24. artikulua araberan, izangaiek epaimahaikideak errekusatu ahal izango dituzte, aurreko artikuluko arrazoiren bat tarterko denean.

6.5. Oinarri hauetan aurreikusi gabeko kontuetarako, Epaimahaiaren jarduteko prozedurak bat egingo du alkatearen uztailaren 1eko 2311/2022 Dekretu bidez onetsitako oinarri orokorrekin, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15-19 artikuluetan ezarritakoarekin.

7. Deialdiak eta jakinarazpenak

Alkatearen eta Epaimahaiaren erabakiak deialdiari, emaitzei eta notei buruz, bai eta beste jakinarazpen eta ebazpen batzuk ere, Interneten argitaratuko dira, lehen adierazitako Basauriko Udalaren helbide elektronikoan. Horrek ez du eragotziko egoki irizitako beste publizitate-bide batzuk ere baliatzea.

8. Hautapen-prozesua

8.1. Lehen ariketa (nahitaezkoa eta baztertzaila). Ezagutza teorikoen testa

Ariketa honetan gehienez ere hamar (10) puntu lor daitezke, eta derrigorrezko proba bat izango da.

Epaimahaiak ezartzen duen gehieneko epean idatziz erantzun beharko zaio oinarri hauei dagokien gai-zerrendako zati orokor eta espezifikokoaren edukiei (I eranskina) buruzko galdera sorta bati, lau erantzun aukeran izanik.



Zuzeneko puntuazioa formula honen emaitza izango da: asmatutakoen kopurua ken errore kopuruaren herena ($P = A - E/3$). Ondorio horietarako, erantzun gabeko galderak ez dira akastzat hartuko.

Ariketaren azken puntuazioa 0tik 10era bitarte izango da, eta hamartarren bi zifra onartuko dira. 7 puntu edo gehiago lortzen ez dituzten hautagaiak kanporatuta geratuko dira. Izangaien nortasuna ezagutu aurretik, eta aurkeztutako izangaien ezagutza-maila ikusita, epaimahaiak 7 puntutik beherako puntuazioa ezarri ahal izango du lehen ariketa hori gainditzeko.

8.2. *Bigarren ariketa (nahitaezkoa eta baztertzaila)*

Epaimahaiak planteatzen dituen kasu praktiko eta/edo teoriko-praktiko bat edo gehiago, erantsitako gai-zerrendako gai espezifikoetarako buruzkoak, epaimahaiak zehazten duen gehieneko epean egin beharko dira.

Erantzunak bi modutara eman ahal izango dira, epaimahaiak alde aurretik erabakitzen duenaren arabera: aukera anitzeko galdera sorta bat izan daiteke, edo izangaiek erantzuna idatziz garatu beharreko galderak.

Aukera anitzeko galderen kasuan, zuzeneko puntuazioa formula honen emaitza izango da: asmatutakoen kopurua ken errore kopuruaren herena ($P = A - E/3$). Ondorio horietarako, erantzun gabeko galderak ez dira akastzat hartuko.

Erantzuna garatu beharreko galderen kasuan, ariketa hori kalifikatzeko honako hauek hartuko dira kontuan: erantzunen zehaztasuna, laburtzeko eta aztertzeko gaitasuna, garatutako ideien aberastasuna eta horien azalpenaren argitasuna eta zuzentasuna.

Bigarren ariketa zero (0) puntutik hamar (10) puntura bitarte kalifikatuko da, eta bost (5) puntura iristen ez direnak kanporatuta geratuko dira.

8.3. *Hirugarren ariketa. (derrigorrezkoa eta baztertzaila). Hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba*

Ariketaren helburua euskarako 2. hizkuntza-eskakizuna lortzea da. Ariketa GAI edo EZ GAI gisa kalifikatuko da, eta gainditzeko ez bada, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da.

Ez dute euskara-proba egin beharrik berau hasi aurretik Epaimahaiari egiaztatzen diotenen honako egoeretako batean daudela:

2. hizkuntza-eskakizuna edo goragoko bat, edo horien baliokidea den titulu edo egiaztagiria badaukatela, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratutako mailekin parekatzeko den azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera.
- Proba egitetik salbuetsita daudela, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagiriaren bidez egiaztatzen salbuesteko den apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren arabera.

Hizkuntza-eskakizuna honelaxe egiaztatuko da:

- IVAPek, HABEk, Osakidetzak edo Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak emandako ziurtagiri edo tituluak dituztenek baimena eman ahal izango diote Basauriko Udalari, hautapen-prozesuan parte hartzeko egiten duten eskabidean bertan, ziurtagiri edo titulu horiek dituztela egiaztatzeko.

Aurreko paragrafoan aipatutakoak ez diren beste euskara-ziurtagiri edo -tituluak dituztenek, Udalari egiaztatzeko baimenik ematen ez diotenen edo tituluak gero lortzen dituztenek dagokion titulu edo egiaztagiraren kopia aurkeztu beharko dute, euskara-probak egiteko data baino lehen.

- 47/2012 Dekretuaren arabera hizkuntza-eskakizuneko azterketa egitetik salbuestita daudenen —ikasketak, osorik edo zati batean, euskaraz egin izanagatik— hala adierazi beharko dute eskabidean, eta, euskara-proba egiteko data baino lehen, ikasketak amaitu dituzten zentro edo unibertsitateak emandako ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko dute.



9. Prozesuaren emaitza eta dokumentuen aurkezpena

Hautaketa-prozesuaren azken kalifikazioa ariketetan lortutako puntuazio guztien batura izango da (betiere gainditu badira). Berdinketa gertatuz gero, oposizio-faseko bigarren ariketan puntuaziorik handiena lortu duenaren alde egingo da.

Behin hautaketa-prozesua amaituta, Epaimahaiak Udalaren helbide elektronikoan (7. OINARRIA) argitaratuko ditu gainditu dutenen behin-behineko kalifikazioak, guztira lortutako puntuazio handienetik txikienerako hurrenkeran, eta berariaz adierazita plaza betetzeko hautatutakoak nortzuk diren. Hautatutakoek kopurua ezingo da izan deitutako plazena baino handiagoa.

Gainditu dutenen behin-behineko zerrenda argitaratzen den dataren biharamunetik aurrera, interesdunek hamar (10) egun balioduneko epea izango dute bidezko jotzen dituzten erreklamazioak egiteko.

Erreklamaziorik aurkeztuz gero, Epaimahaiak horiek ebatzi beharko ditu eta, horren ondoren, hautapen-prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrenda argitaratuko du.

Horren ostean, Epaimahaiak praktiketako funtzionario izendatzeko proposatzen dituen izangaien zerrenda argitaratuko du, eta 15 egun balioduneko epea zabalduko du, izangai horiek dokumentu konpultsatu bidez egiazta dezaten parte hartzeko 2. oinarrian jasotako baldintzak betetzen dituztela. Era berean, izangaiak honako agiri hauek entregatu beharko dituzte:

- NANaren fotokopia konpultsatua.
- Atzerriko izangaiak jakinarazpen bat jasoko dute Basauriko Udaletik, eta bertan adieraziko diete beren egoera kontuan hartuta zein agiri zehatz aurkeztu beharko duten, derrigorrez.
- Zinpeko aitortpena, adieraziz norbera ez dagoela ez funtzio publikoetan jarduteko gaitasungabetua, ez edozein herri administrazioetako zerbitzuetatik diziplina-espediente bidez baztertua, ez eta abenduaren 26ko 53/1984 Legean herri administrazioetako langileentzat aurreikusitako ezintasunerako eta bateraezintasunerako lege-arrazoietan sartuta ere.
- Espaniako nazionalitatearik ez duten izangaiak zinpeko aitortpena aurkeztu beharko dute, adieraziz ez daukatela beren estatuan funtzio publikora sartzea galarazten dien diziplina-zigorrik edo zigor penalik.
- Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazetara aurkezten direnek % 33ko desgaitasun-maila edo handiagoa egiaztatu beharko dute, organo eskudunak emandako ziurtagiri egokiaren bidez.
- Era berean, hautatutakoek egiaztatu beharko dute ez daukatela oinarri hauen arabera dagozkien eginkizunak betetzea galarazten dien gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik. Horretarako, dagozkien probak eta osasun-azterketak egin beharko dituzte, Basauriko Udalak dituen lan-osasun zerbitzuetan. Lanpostua betetzeko gaitasun funtzionala egiaztatzen duten probak eta mediku-azterketak egiteko deialdia modu pertsonalizatuan egingo da.

Adierazitako epe barruan, eta ezinbesteko arrazoiak gertatzen direnean salbu, proposatutako izangaiak ez badute dokumentazioa aurkezten, edo ez badute egiaztatzen eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela, ezin izango dira funtzionario izendatu, eta beren jarduketa guztiak baliogabetu egingo dira; eta horrek, gainera, ez du eragoziko eskabidea faltsutzeagatik erantzukizuna leporatu ahal izatea. Kasua hori denean, izangaiak hautapen-prozesuko emaitzan izandako puntuazioaren hurrenkeraren arabera ordeztuko dira, ordeztukoak, aurretiaz, lehen aipatutako agiriak aurkeztu eta gero.

10. Praktikaldia eta prestakuntza

Sei hilabeteko praktika- eta prestakuntza-aldia egingo da, Alkatearen uztailaren 1eko 2377/2022 Dekretuaren bidez onetsitako Oinarri Orokorren hamaikagarren oinarrian ezarritakoaren arabera.



11. Izangaiak izendatzea eta plazaz jabetzea

Izangaiak Basauriko Udaleko karrerako funtzionario izendatuko dira Alkatearen uztailaren 1eko 2377/2022 Dekretu bidez onetsitako Oinarri Orokorren hamabigarren oinarrian xedatutakoarekin bat.

12. Lan-poltsak

Hautapen-prozesuaren emaitzekin lan-poltsa bat eratuko da, oposizio-faseko ariketak gainditu dituzten izangaiekin. Hasieran, 3 urteko iraupena izango du lan-poltsa horrek, eta aldi baterako langile-beharrizanak betetzeko baliatuko da. Lan-poltsa, bestalde, Basauriko Udaleko lan-poltsari buruzko araudian ezarritakoaren arabera kudeatuko da, jarraian datorren paragrafoan adierazitakoaren kalterik gabe.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera eratutako lan-poltsa agortzen bada, beste lan-poltsa batzuen aurrean lehentasuna izango dute nahitaezkoak eta baztertzailak diren probarik gehien gainditu dituzten izangaiei zerrendek, gainditutako proba horietan guztira lortutako puntuen hurrenkeran.

Berdinketa gertatuz gero, oposizio-faseko bigarren ariketan kalifikaziorik altuena duen pertsonaren alde egingo da.

13. Izaera pertsonaleko datuak babestea

Eskabideetan emandako informazio guztia fitxategi batean gordeko da. Fitxategi hori bakar-bakarrik erabiliko da hautapen-prozesua kudeatzeko, bai eta bitarteko funtzionarioak aldi baterako kontratatze eta izendatzeko osatzen den lan-poltsa kudeatzeko ere.

Deitutako plazak lortu nahi dituztenek beren berriaz eman behar dute adostasuna segurtasun-neurriak behar dituzten eta hautapen-prozesurako beharrezkoak diren datuak tratatuak izateko.

Hautaketa-prozesuan emandako datuak beste administrazio publiko batzuei laga dakizkieke, hala eskatzen badute. Titular diren datu pertsonalen lagapen hori egitea nahi duten izangaiek berriaz eman beharko dute baimena.

Hautapen-prozesuan parte hartzen dutenen informazio-eskubidea bermatzeko, prozesuko zerrenda guztiak Internet bidez kontsultatu ahal izango dira, lehen adierazitako Basauriko Udalaren helbide elektronikoan.

Eskabidean jasotako helbidea, telefono-zenbakiak eta helbide elektronikoak baliozkoztat joko dira. Eskabidea egiten dutenen erantzukizuna da, ez beste inorena, datu zuzenak ematea eta Epaimahaiari horien gaineko aldaketen berri jakinaraztea.

Egin beharreko jakinarazpenetarako, eskabidean adierazten dena hartuko da jakinarazpenetarako helbidetzat, ez bada gerora beste bat jakinarazten zaiola deialdia egin duenari, berriaz eta modu frogagarri batean.

14. Gorabeherak

Epaimahaiak oinarri hauetan zehaztu gabe dagoen guztiari buruz sor daitezkeen zalantzak ebatzi, eta hautapen-prozesua behar bezala garatzeko beharrezko erabakiak har ditzake.

Interesdunek deialdiaren, oinarrien eta horietatik eta Epaimahai Kalifikatzailearen jardueratik erator daitezkeen administrazio-egintza guztien kontra egin dezakete, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean zehaztutako kasuetan eta bertan ezarritako moduan.

**I ERANSKINA
GAI-ZERRENDA****1. ZATI OROKORRA**

1. gaia: Espainiako Konstituzioa. Atariko titulua. Oinarrizko eskubide eta eginbeharra (EK: Atariko Titulua eta I. Titulua).

2. gaia: Espainiako Konstituzioa. VI. Titulua. Botere Judiziala (117-136 artikulua). IX. Titulua. Konstituzio Auzitegia (159-165 artikulua).

3. gaia: Estatuaren lurralde-antolaketa. Autonomia-estatutuak: esanahia. Estatuaren eta Autonomia Erkidegoen arteko eskumenen banaketa sistema. 1978ko Espainiako Konstituzioaren VIII. Titulua (137-158 artikulua).

4. gaia: Europako Batasuna. Europako erakundeak: Parlamentua, Batzordea; Europako Batasuneko Kontseilua eta Europako Batasuneko Justizia Auzitegia. Legegintza-jarduera, Zuzenbide-iturriak. Kontzeptua: Erregelamenduak, Zuzentarauak eta Erabakiak.

5. gaia: Euskal Herriko Autonomia Estatutua (I). Atariko titulua (1-9 artikulua). I. Titulua: Euskadiren eskumenak: eskusiboak, lege bidez garatu beharrekoak eta betearaztekoak (10-23 artikulua).

6. gaia: Euskal Herriko Autonomia Estatutua (II). Euskal Herriaren aginteak (II. Titulua). Ogasuna eta Ondarea: Ekonomia-ituna (III. Titulua).

7. gaia: Administrazio Zuzenbidearen iturriak: Legea: kontzeptua eta motak. Erregelamendua: erregelamenduak egiteko ahalaren titulartasuna eta mugak. Arau-hierarkia. Legezketasun-printzipioa Administrazio Publikoan.

8. gaia: Enplegu Publikoa (I). Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu batekina onartzen duena; Administrazio publikoetako langileak (8-13 artikulua); Enplegatu publikoen eskubideak: Norbanakoaren eskubideak eta taldean baliatzen diren norbanakoen eskubideak. III. Titulua. III. Kapituluak (14-15 artikulua). Lanbide-karreraren aurrera egiteko eta barne-sustapena izateko eskubidea. Jarduna ebaluatzea. III. Titulua. II. Kapituluak (16-20 artikulua). Ordainsari-eskubideak. III. Titulua. III. Kapituluak (21-30 artikulua). Enplegatu publikoen eginbeharra. Jokabide-kodea. III. Titulua. VI. Kapituluak. (52-54 artikulua).

9. gaia: Enplegu Publikoa (II). Administrazio-egoerak (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu batekina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren VI. Titulua; Langileen administrazio-egoerak euskal administrazio publikoetan (Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen X. titulua). Hizkuntza-normalizazioa (Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen XII. titulua).

10. gaia: 1/2003 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko legearen testu batekina onartzen duena. Printzipio orokorrak (3. Artikulua). Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen eta aginteen jardueran genero ikuspegia txertatzeko neurriak (II. Titulua).

2. GAI ESPEZIFIKOAK

11. gaia: 12/2002 LEGEA, maiatzaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Ituna onartzen duena. I. kapituluak. Zergak (1. eta 15. atalak). 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena. V. titulua. I. kapituluak eta VIII. titulua.

12. gaia: Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Araua eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 139/2015 FORU DEKRETUA, uztailaren 28koa, Bizkaiko toki-erakundearen kontabilitatea arautzeko esparrua onartzen duena. 2. Eranskina - Toki-erakundearen aurrekontu-egitura.



13. gaia: Bizkaiko Foru Aldundiaren 139/2015 FORU DEKRETUA, uztailaren 28koa, Bizkaiko toki-erakundeen kontabilitatea arautzeko esparrua onartzen duena. 2. Eranskin - Toki-erakundeen aurrekontu-egitura.

14. gaia: 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa. Atariko titulua. II. kapitulua (8-21 artikulua). I. titulua: Dirulaguntzak Emateko eta Kudeatzeko Prozedura (22-35 artikulua). II. titulua. Itzulketak.

15. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena. Prozedurako interesdunak; I. tituluko I. kapitulua: Jarduteko gaitasuna eta interesdunaren kontzeptua (3-8 artikulua); II. kapitulua: Administrazio-prozeduran interesdunen identifikazioa eta sinadura (9-12 artikulua).

16. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena. Administrazio publikoen jardura. II. titulua. I. kapitulua: Jarduteko Arau Orokorrak (13-28 artikulua). II. kapitulua: Epe-mugak eta epeak. (29-33. artikulua).

17. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena. Administrazio-egintzak. III. titulua. I. kapitulua: Administrazio-egintzen betekizunak (34-36 artikulua). II. kapitulua: Egintzen eraginkortasuna (37-46 artikulua). III. kapitulua: Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna. (47-52 artikulua).

18. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Administrazio-prozedura erkideari buruzko xedapenak (IV. titulua); prozeduraren bermeak (I. kapitulua). Prozedura hastea (II. kapitulua). Prozeduraren antolamendua (III. kapitulua). Prozeduraren instrukzioa (IV. kapitulua). Prozeduraren amaiera (V. kapitulua). Administrazio-prozedura erkidearen izapidetze sinplifikatua (VI. kapitulua). Gauzatzea (VII. kapitulua).

19. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena. Egintzak administrazio-bidean berrikustea V. tituluko I. kapitulua: ofiziozko berrikuspina (106-111 artikulua). II. kapitulua: Administrazio-errekurtsoak (112-126. artikulua).

20. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena. Legegintza-ekimena eta erregelamendua eta beste xedapen batzuk emateko ahala. VI. titulua (127-133. artikulua).

21. gaia: 2/2005 FORU ARAUA, martxoaren 10ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzkoa. I. titulua – Zerga-ordenamenduko xedapen orokorrak.

22. gaia: 2/2005 FORU ARAUA, martxoaren 10ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzkoa. II. titulua – Zergak.

23. gaia: 2/2005 FORU ARAUA, martxoaren 10ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzkoa. III. titulua – Zergen aplikazioa.

24. gaia: 2/2005 FORU ARAUA, martxoaren 10ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzkoa. IV. titulua – Zehatzeko ahala.

25. gaia: 2/2005 FORU ARAUA, martxoaren 10ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzkoa. V. titulua – Administrazio-bidean berrikustea.

26. gaia: Bizkaiko Foru Aldundiaren 112/2009 FORU DEKRETUA, uztailaren 21ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergak kudeatzeko Erregelamendua onartzen duena.

27. gaia: Bizkaiko Foru Aldundiaren 5/2012 FORU DEKRETUA, urtarrilaren 24koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamendua onartzen duena.

28. gaia: 125/2019 FORU DEKRETUA, abuztuaren 21ekoa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Bilketako Erregelamendua onartzen duena, UEFA Euro 2020ren azken faseko zerga-arabidea garatzen duena eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Araua garatzeko Erregelamendua aldatzen duena, administrazio-bidean berrikusteari dagokionez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Ikuskaritzako Erregelamendua eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua.

29. gaia: 100/2005 FORU DEKRETUA, ekainaren 21ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Zehapen Araudia onartzen duena.



30. gaia: 228/2005 FORU DEKRETUA, abenduaren 27koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Araua garatzeko Erregelamendua onartzen duena, administrazio-bidean berrikusteari dagokionez.

31. gaia: 101/2005 FORU DEKRETUA, ekainaren 21ekoa, zerga kontsulta idatziei, tributazio aurreko proposamenei eta elusioaren aurkako klausulari buruzko prozedurak garatzen dituena.

32. gaia: Toki-ogasunak. Toki-ogasunen zerga-printzipioak (1978ko Espainiako Konstituzioaren 133. eta 142. artikulua). Toki-ogasunen baliabideak (2/2004 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 5ekoa, toki-ogasunak arautzen dituen legearen testu bategina onartzen duena. I. titulua. I. kapitulua (2. artikulua) eta Toki Ogasunen Errekurtsoa: 9/2005 Foru Araua, abenduaren 16koa, Toki Ogasunei buruzkoa). II. titulua.

33. gaia: 4/2016 FORU ARAUA, maiatzaren 18koa, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzkoa.

34. gaia: 2/1992 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, martxoaren 17koa, Ekonomia Jardueren gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 6/1989 Foru Arauaren Testu Bategina onartzen duena.

35. gaia: 7/1989 FORU ARAUA, ekainaren 30ekoa, Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergari buruzkoa.

36. gaia: 10/1989 FORU ARAUA, ekainaren 30ekoa, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari buruzkoa.

37. gaia: 8/1989 FORU ARAUA, ekainaren 30ekoa, Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzkoa.

38. gaia: 4/1990 FORU ARAUA, ekainaren 26koa, Bizkaiko Foru Administrazioaren tasa, prezio publiko eta beste zerga baliabide batzuei buruzkoa.

39. gaia: 6/2015 LEGEGINTZAKO ERREGE DEKRETUA, urriaren 30ekoa, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena. V. titulua – Zehapen-araubidea.

40. gaia: Basauriko Udalaren Kudeaketa, Bilketa eta Ikuskaritzako ORDENANTZA FISKAL Nagusia eta Basauriko Udalaren zerga, tasa eta kontribuzio berezien ORDENANTZA FISKALAK.